

Ardiarekilako harremana

E.: banaka-banak zautzen zintien zure ardiak, zuk?

B.: ba, ba, ta gero denak errotik.

E.: nola zautzen zintien?

B.: hara, erten daate... Ez zira bakarra ez ori galdeiten... Galdeiten ori. “nola zautzen zie ardiak?” ta, “nik denak berdinak arrapatzen tiat”. Denek baute zeit liferentzia, nik denak ta gero zoin axuri zoin ardiinak ta, ortako bear da zaupidia izan, ez dut nik ina geo zaupidia, ori sortziak emana du, bana iziarriko zaupidia izana ut nik beti, ta ardiekin aizana niz ni beti, errain dut garbi-garbia, aisa izana ni arditan, ardikin, beti. Ardien erditze sasoinian ta, nai du artzaina urran, beti re ba, bana partikulazki erditzekp sasoinian ta arkal denboan ta, baizu, marroen kaso iteko ta, a ori ba, ta partikulazki erditzeko sasoinian ba, badira axuriak makur peresenta... Ez xuxen presentatzen dienak, ordian entik... Niuntik aalian, ek bear tzu xuxendu ta kendu, ortako eskia iziarri una nin, ta baizu, azuri... Axuria ez bazen xuxen, xuxentzeko ta, kentzeko axuriain, bakarrak batut kendiak Behauzen e, batzuindako ta bestendako ta, ortako banin...

E.: trebetasuna.

B.: ba, ba, ba, iziarri, zombait aldiz gertatzen zen edo buria gileat edo bi besoak gileat edo giilekoz aitzin ta, berdin zangoak aitzinea ta, ek bear tzu xuxendu, beauzu barnea sartu ta zango puntta arrapatu aalaz ta hunekin ori orra pusa ta emeki... Ez da aisa ori ta, beauzu pazientziaikin... Iten duzu. Utzi izan tut artako dina, ezin yeus e in eta, ez ez... Arrunt guti denboan, ta erreusitzen nin aisa, uts in dut zombait aldi bana ez, guti biziki, ba.

E.: erten da, zuaurek erran duzu pazientzia ainitz bear dela ardieikin.

B.: a ba, ba, ba. Ardiak galdin zin artzaina trankila, ez eta antik itzul eta ortik itzul, eta hola extekan ardia, trankila! Bakarretan... Nik ori erran ta entzun dut bakarretan: “to, hi ala iz seurki ta i, ordian trankila bear bazuten, hi trankila iz”, kar kar kar.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika
Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy
Doktorego-tesia Gasteiz, 2021
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa
Letren Fakultatea
UPV-EHU
Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.
Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala